

# AKZOTIK PAPERERA

## Poesia bisuala egiteko bidea, poesia ilustratu forman, «Titiritari» liburuan

 **KULTURA** / Nerea LAUZIRIKA

**E**sku artean hartu duen unean bertan ituna sinatu du irakurleak “Titiritari” liburuarekin, nahi eta nahi ez. Miren Amuriza idazle eta bertsolariak eta Malen Amenabar irudigileak paperera eraman dute ohol-tza gainean zein haren inguruan Anita Maravillas konpainiako kideek eta kolaboratzaileek egiten duten lana. Bertan jaso dituzte haien esanak, noski, baina, obraren hasiera mar- katzen duen esaldiak argi uz- ten du, entzun, denak entzun badituzte ere, sinetsi, txo- txongiloei sinetsi behar die tela irakurleek.

Amuriza, Amenabar eta Mi- ren Larrea konpainiaren sor- tzaile eta kidea GAUR8rekin aritu dira liburuaz, kontatzen dituenek eta hura ontzeko prozesuaz. Elkarren ez ezik, Zornotzako Billiken eta Du- rangoko Artekan ere badago eskuragarri, Iñigo Astiz edito- re izanda, Anita Maravillasek eta Portal 71k plazaratu duten “Titiritari”.

### AHOTTS TXIKIAK HANDI

Txotxongiloei sinesteko gon- bita egiten diote egileek ira- kurleari, haiek kontatzen du- tenaren lekuko ez ezik, protagonista ere bilakatuko dutelako. Amenabarrek azaldu du garrantzi handia eman dio- la bai txotxongiloaren begira- dari bai hari begiratzeko mo- duari ere.

«Txotxongiloa eraikitzen da berarentzat ezezaguna den le- ku batean eta leku hori desku- britzen hasten da», azaldu du. Deskubritze prozesu horre- tan, begirada zelanbait feed- backa itzultzeko modu bat da irudigilearentzat, eta erdigu- nean jarri nahi izan du txo-

Anita Maravillas antzerki konpainia sortzaile izatetik mu- saren rola hartzera igaro da. «Titiritari» liburuan jaso du- te Miren Amurizak eta Malen Amenabarrek, hitzez eta irudiz, hurrenez hurren, titiritarien lana, poesia bisualaren bidez. Jostailutik ere badauka zatika zein jarraian irakur daitekeen liburuak, ume zein helduentzat gozagarri.

txongiloa libururako sortu di- tuen irudietan.

Irudietan ez ezik, Amuriza- ren hitzetan ere espazio bere- zia du titereak. Ez da batere ohikoa eskaini dion lekua. Izan ere, normalean autorita- tea izango liratekeenek –«hel- duak, beharginak, dakite-

nak»– hartzen duten tokia gorde dio txotxongiloari, pro- tagonismoa «beste ahots txiki horri» emanda.

### ZALANTZEI GALDEREZ ERANTZUN

Galderak aipatzen ditu “Titiri- tari” liburuak; bereziki, an- tzez-lana bukatutakoan, hau-

Malen Amenabar, Miren Larrea eta Miren Amuriza, “Titiritari” liburu- a esku artean dutela.  
Marisol RAMIREZ | FOKU

rrek titiritariei egiten dizkie- tenak –ahoa zalantzak bota- tzeko metraileta balute beza- la, gainera–.

Amurizari enkargua egin ziotenean, ordea, argi utzi zio- ten ez zutela erantzundun li- bururik nahi, hurrei sortzen zaizkien galderei jarraituko dien haria baizik, bide beretik jarraitu dezaten. Baietz dio buruaz Larreak, kideari en- tzun bitartean. «Gu beti saia- tzen gara galdera berriak edo pizgarri berriak sortzen», gai- neratu du.

Hala ere, funtzionamendua- ri eta beste hainbat xehetasu- ni lotutako kontuak jaso di- tuzte, antzerkiaren alorrean ibili ez den edonorentzat argi- garriak direnak, alor ezezagu-



na baita gehiengoarentzat arte eszenikoena, are gehiago txotxongiloekin egindako antzezlanena.

Horrela, irakurleak jakingo du dekoratuaren parte bat antzezleek beraiek eskuz prestatzen dutela, titereak obra bakoitzerako sortzen dituztela buztinez, banatzaileak zein lan egiten duen, zuzendariak zein rol jokatzeko duen... Eta beste pila bat gauza, ezinezkoa badirudi ere, liburuan kabitzen direnak.

Horrez gain, egileek ez dute inori, haur zein heldu, zein ondorio atera beharko lukeen esateko asmorik, horixe da eta Anita Maravillasen egiteko modua, Amurizak eta Amenabarrek liburuaren ontzean errespetatu dutena.

Miren Amurizak aitortu du haurrei zuzendutako liburu, antzerki zein bestelako produktuekin badagoela moralista izateko joera, ona eta txarra zer den adieraztekoa. «Zuena beste sentsibiltate batetik egindakoa da», dio Miren Larreari begira, «irakaspenik barik».

Ados dago titiritaria, eta azaldu du kontatzen dituzten istorioetan ez direla saiitzen inori ikasketarik entregatzen; «nor da nor gaur egun norbaiti esateko zer dagoen ondo eta zer txarto?». Horregatik, pozik eta hunkituta dago liburuaren emaitzarekin, bat datorrelako konpainiarekin: «Iruditzen zait lehengusinak direla».

#### «POESIA AKZIOAN»

Liburuan jasotako aipu batek dio txotxongilo hori dela: «poesia akzioan». Izan ere, Anita Maravillas konpainiak sortzen dituen antzezlanetan poesia bisuala bilatuz egiten dute lan, Miren Larrearen hi-



tzetan. Beharbada, horregatik eman diote liburuari poesia ilustratu forma. Horrela, poesia, hitz laua eta irudiak tartekatzen dira, haien artean elkarriketa moduko bat sortuz.

Liburua da, berez, irakurtzeko sortua; teoriarik, behintzat. Jolasetik asko dauka, ordea. Izan ere, aukera ematen du lehen orrialdetik hasi beha-

Hau ez da izan Amenabar eta Amuriza Anita Maravillas konpainiarekin lanean ibili diren lehen aldia. Marisol RAMIREZ | FOKU

rrean, zatika irakurtzeko; norberarentzat bakarrik ez, ozen irakurtzeko... Eta behin baino gehiagotan aztertuz gero, aldi bakoitzean xehetasun berriak aurkituko dizkio irakurleak esku artean darabilen obrari.

Horrez gainera, prozesu paraleloak izan dira Anita Maravillasen “Andereño” antzezlanaren sortze prozesua eta Amenabarren eta Amuri-

zaren “Titiritari” liburuarena, antzerkiaren ontze prozesuari begira joan baitira osatzen orain liburu formari plazaratu dutena.

Amurizak elkarriketen eta behaketaren bidez jaso ditu testuak sortzeko behar zituen azalpenak eta bizipenak eta, ondoren, Amenabarri egokitu zaio irudiak sortzea, betiere elkarlanean.

Bi egileek nabarmendu eta eskertu dute, hain zuzen ere, elkarlanean aritzeko aukera. Malen Amenabar ilustratzaileak izaki, askotan egokitzen zaio prozesuaren azken momentuan soilik esku hartzea, bide osoan parte hartzeko aukera izan gabe. Bestelakoa izan da “Titiritari” prestatzeko modua.

Biak ala biak Anita Maravillasekin lan egindakoak dira. Izan ere, Amurizak idazten dizkie darabiltzaten hitz gutxiak eta Amenabarrek eszenografiarako irudiak egin izan dizkie, besteak beste.

Erronka izan dela aitortu du Amurizak, eskarmentudun idazlea bada ere: «Orain arte idatzi ditudan gauzetan ezagutzen nuenari edo gutxi gorabehera ukitzen ninduenari buruz idatzi izan dut. Hone-tan, ezjakintasunetik abiatuta egin dugu». Hori dela eta, titiritarien lana bertatik bertara ezagutzea izan zen lehen pausoa eta, horretarako, sortze prozesuaren zatietan izan dira, hasiera-hasieratik.

#### POEMAK ETA ESANAK

Hori gutxi ez, eta produkzioan parte hartu duten ki-deak elkarriketatuta ditu Amurizak; «ordubeteko eta bi orduko elkarriketak» egin dizkie denei. Hortik atera ditu liburuak dakartzan aipu asko, azaldu duenez. «Testu batzuk





asmatutakoak dira eta beste batzuk, Iñigo Astizek esanda, poema aurkituak»; hots, elkarriketatuen esanak hartu eta gehiegi orraztu gabe liburuan txertatuak, azaldu du Amurizak eskuarekin pintzaren keina eginez.

Malen Amenabarrek “Andereño” antzezlanean txotxongiloen luzapena ziren irudiak sortu zituen eta horrek aukera eman dio titiritarien lana bertatik bertara ezagutzeko, baita “Titiritari” enkargua jasoa aurretik ere. Entseguetan egon da eta deigarria iruditu zaio nola aldatzen den eszenatokia saio batetik bestera: «Titireak hartzen dute eta zutunik jartzen dute; orduan, bizirik dago».

Azaldu du momentu horietan ikusitakotik osatu duela gerora liburua ilustratzeko erabili duen iruditegia, «ilustratzaile moduan sortu duan pertsonaia hori bizirik dago

eta entseguetan ikusitakotik sortua da».

**IRUDI EHIZTARIAK**

Anita Maravillasen produkzioetako txotxongiloak ez dira haridun peluxezko panpinak, ezta titere hiperrealistak ere. Izan ere, Larreak azaldu du ez direla saiatzeko ezer errealek bilatzen, horretarako badaudelako pertsonak edo aktoreak, eta labur geratzea iruditzen zaio errealtatearen erreproduktzio fidel hutsa bilatzea.

**Normalean «helduari, beharginari, dakienari» ematen zaion autoritate espazioa eman nahi izan dio Miren Amurizak titereari, haren ikuspuntua nabarmenduz**

**Miren Larreak azaldu du kontatzen dituzten istorioetan ez direla saiatzeko inori ikasketarik entregatzen; «nor da nor gaur egun norbaiti esateko zer dagoen ondo eta zer txarto?»**

Elkarlanerako sortu duten espazio ezin egokiagoaz aritu dira hirurak.  
Marisol RAMIREZ | FOKU

Horrela, txotxongiloek aukera ematen diete beste unibertso bat sortzeko, ideia askoz ere poetikoagoak egikaritzeko. Panpinekin, argiztapenarekin, testuekin eta beste hainbat elementuekin egiten dute lan, horiekin guztiekin batera irudi jakin bat bilatzen dute, eta «irudi horrek ematen duen emozioa, zerbait oso intuitiboa».

Nabaria eta begien bistakoa denetik ihesi, Anita Maravillasen obretan nahiago izaten dute iradoki, ikusleei esperientzia pertsonalagoa bizitzeko aukera emanez.

Miren Larrea jakitun da batzuek panpinengan errealtismoa bilatzen dutela, baina bidaia beste norabide batean egin behar dela uste du berak: «Irudi ehiztariak gara eta zerbait transmititzeko lortu nahi dugu irudi hori». Horretarako titereak baliabide pargabea direla ziur dago, oso

aberatsa baita haien lengoia eszenikoa.

**BIZIRIK, TITIRITARIAREN ESKUETAN**

Maren Basterretxea da txotxongiloei bizia ematen dien titiritarietako bat eta harekin izan zuen elkarriketan azaldu zion Amurizari nola igarotzen den titerea panpina izatetik izaki biziduna izatera, hiru adibide emanda: «Lehenik, buaren mugimendua; bigarrenik, ilea mugitzea, eta hirugarrenik, atzamarra kamisetaren atzetik sartu eta bihotz taupada egitea». Deigarria iruditu zitzaion Amurizari, horrenbeste, non “Bihotz kilker” poema idatzi baitio «diferentzia txiki handi» horri.

Amenabarren arreta ere deitu du horrek eta, bere diziplina ekarrita, collage bat iruditzen zaio: «Testura pila bat, geruza pila bat, elementu pila bat, kolore eta argi pila bat... Horien arteko konbinazio per-



fektua da». Gainera, horren beste elementu desberdin egoteak aukera ematen dio ikusle bakoitzari detaile jakin batekin geratzeko, irudigilearen hitzetan.

#### ANITA MARAVILLAS

Konpainia txikia da Anita Maravillas, lau buruko nukleoa eta kolaboratzaile asko dituen –finkoak, gehienak–. Miren Larrea zornotzarrak eta Valentina Raposo txiletarrak sortu zuten 2005ean Bartzelonan. Euskal Herrira itzulitakoan, Portal 71rekin hasi ziren elkar lanean, produkzioa haiek eraman zezaten.

Ia bi hamarkadako ibilbidean hainbat aitortza jaso dituzte: 2021eko Feten jaialdian titereekin egindako ikuskizun onenaren saria eman zieten eta 2022. urtean Arte Eszenikoen Max Sarietako finalista izan ziren. Furgoneta bidela gun, biran ibiltzen dira aste-

buru askotan; «hori ere bada prozesuaren parte, hamar ordu furgonetan ematea», dio Larreak.

Portal 71n ezagutu zuten Ivan Alonso. «Segidan konturatu ginen berak izan behar zuela gure zuzendaria, oso ondo ezagutzen duelako gure lana, baita gure esentzia ere, eta gure harrikada ere bai», gogoan du Larreak. Ion Chavez da laugarren kidea: bera arduratzen da argiztapenaz. Larrea lehendik ere harekin lan egindakoa zen, eta argi zuen taldean nahi zuela.

Nukleoa, berez, lau lagunek osatzen badute ere, kolaboratzaile finko asko dituzte inguruan. Rocio Pindado da horietako bat, Portal 71n salmentaz arduratzen dena, «eta gehiago ere egiten du», adierazi du Miren Larreak.

«Gero, sortze prozesua hasten denean deitzen ditugu betiko kolaboratzaileak eta beste

berriren bat», eta horrela lortu dute kolaboratzaile sarea osatzea: «Musika konposizioan Fran Lasuen sartzen dugu, Iñaki Ziarrustak eraikitzen du guk proposatzen dugun eszenografia, Betitxe Saitua ibiltzen da gure jantziekin, panpinen jantziekin Paulette San Martin...». Eta, nola ez bada, baita Miren Amuriza eta Malen Amenabar ere, besteak beste; «horren atzean jende pila bat dago», argitaratu berri duten liburuan ezin hobeto azaltzen denez.

Jende asko sartzen dute proiektuan lanean aldi berean, eta Miren Larreak azaldu du, horrelako zerbait ondo irten dadin, ezinbestekoa dela ideia bera oso argi izatea: «Konpainiak oso landuta izan behar ditu gauzak besteei transmititu ahal izateko, askatasuna eman ahal izateko».

Hori baita darabilten metodoa, bakoitzari egiten dakien hori askatasunez egiten uz-

**Malen Amenabar “Andereño” antzezlanaren hainbat entsegutan egon da: «Titerea hartzen dute eta zutunik jartzen dute; orduan, bizirik dago»**

**Larreak azaldu du ez dutela errealismoa bilatzen haien antzezlanetan: «Irudi ehiztariak gara eta zerbait transmititzeko lortu nahi dugu irudi hori»**

tea, ilustratzaileari esan gabe zein kolore erabili behar duen edo argiztatzaileari zein argi piztu behar duen, esaterako. Larreak azaldu du horrela eratutako giroa dela sortzeko aproposena; elkarrekiko errespetuan eta konfiantzan oinarritzen dena, alegia.

Era horretan lortzen dute horren prekarioa den arte eszenikoen munduan lantalde egonkor bat mantentzea. Konpainiak hogeitau urte beteko ditutorren urtean, gauzak ondo egiten ari diren seinale.

Hiru elkarriketatatuak, Durangoko Plateruenaren aurrean eserita.  
Marisol RAMIREZ | FOKU

